


Haur Eskolako 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-epa

2025/2026 ikasturterako, **2023an, 2024an eta 2025ean** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **martxoaren 31tik apirilaren 11ra** bitarte egongo da zabalik.

Bestalde, **martxoaren 25ean ATE IREKIAK** saioa eskainiko da, arratsaldeko **17:30etan**. Bertaratzeko interesa duenak, izena eman beharko du [galdetegi hau](#) betez. Anima zaitetzte!



Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.

Azoka solidarioa

Kaixo! Gu LH6-ko ikasleak gara eta aurten, gure proiektua DYA-ri laguntzeko azoka-solidarioa antolatzea da. Azokan, bizkotxoak (glutenarekin eta gabe), patata-tortilla eta DYA-ko hainbat produktu egongo dira salgai.

Prezioak honako hauek dira:

Bizkotxo zatia (glutenarekin eta gabe) 1€, patata-tortilla pintxoa 1,50€ eta DYA-ko hainbat produktu ere edukiko ditugu.

Azoka **martxoaren 24tik 28ra** izango da, **Agerialdeko jolastokian edo frontoian 16:15etik 16:45era** izango da.

ANIMATU ETA ETORRI GUREKIN BATERA DYA-KOEI LAGUNTZERA!!!



Eskerrik asko
Gipuzkoa!!

Tanta boletoak

Aurtengo Kilometroak jaia Elgoibarko ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)



salto-saltoka
KILOMETROAK 2025 ELGOIBAR

Bestalde, jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari martxoaren 28an banatuko diogula **Tanta** txartel bat. Boleto gehiago eskatu nahi izan ezker, mesedez, usurbil@ikastola.eus helbidera idatzi martxoaren 20a baino lehen. Kobrantza errezibo bidez egingo da martxoaren 21ean. Bakoitzaren salneurria **5 €**-koa da eta saria 60.000 € izango da.

Euskaraldia

Dakizuen bezala, **EUSKARALDIA maiatzaren 15etik 25era** izango da aurten eta guk Udarregi Ikastolak, entitate bezala izena eman dugu. Horrek 16 urtetik gora ditugun ikastolako kide guztioi eragiten digu.

Entitate bezala jada izena eman dugun arren, **norbanakoen izen ematea martxoaren 15ean** hasiko da eta EUSKARALDIA ariketa sozial bat denez, ikastolaren kide garenoi bertan parte hartzea komeni zaigu. Hortaz, Euskaraldian parte hartzeko gonbita luzatzen dizuegu.

Bestalde, Euskaraldiak iraun bitartean guraso eta ikasleei begira ekintza pare bat antolatzea gustatuko litzaiguke eta horretarako elkarlanerako laguntza eske gatoz.

Irakasle eta gurasoz osatutako iraupen mugatuko lantalde bat osatzea litzateke asmoa; animatuko zinateke?


Zuen prestutasuna adierazteko idatzi mezu bat dagokizuen tutoreari edota euskarazgattunk@udarregi.eus helbidera. Ongi etorriak izango zarete!

Denon artean hizkuntza-ohiturak aldatuz joango gara!



ERRIGORA; udaberrko kanpaina

Ezagutzen al duzu Errigoraren udaberriko kanpaina? Eskutik Eskura deitzen da, eta bertan Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak (oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo-loteak) Euskal Herri osora banatzen ditugu jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta.



Orain da jauzia emateko unea! Euskarari bultzada eman diogun gisa berean eman diezaiogun elikadura burujabetzari ere! Denon onura elikatzen duen ereduaren alde!

Sartu errigora.eus atarian, egin eskaera eta jaso zure herrian. **Martxoaren 26ra arte soilik!**

HAUR HEZKUNTZA

Guraso-bilerak

- **1-2 urtekoak:** Martxoaren 19an arratsaldeko 17:30ean Haur Eskolan, 1-2 urteko haurren gusaroekin bilera egingo da.
- **2-3 urtekoak:** Martxoaren 26an arratsaldeko 17:30ean Haur Eskolan, 2-3 urteko haurren gurasoekin bilera egingo da.

*Ez da zaintza zerbitzurik emango.

*Haurrik gabe etortzea eskatzen da.



LEHEN HEZKUNTZA

Irteeren kobrantza

- **LH2:** Hiruhilabete honetako irteerak (Eureka zientzia museora eta Txurrukako 2. aurrerapena) kobratuko zaizkizue martxoaren 17an, astelehenean. Denera **27,50 €** izango dira.
- **LH6:** Martxoaren 17an, astelehenean, **30 €** kobratuko zaizkie LH6ko familiei Zuhatzara egingo duten irteeraren 2. zatiagatik.



Komiki-tailerra

Datorren **martxoaren 28rako**, ostiralarekin, 17:30etik 19:00etara, **KOMIKI-TAILERRA** antolatu dugu Sutegi Liburutegian.

Saioa **LH 4tik gorako haurrei eta gazteei zuzendua** izango da, eta Ainara Azpiazuk ("Axpik) eskainiko du. Saiotan zehar komiki bat egiteko oinarritzko ezagutzak eta baliabideak eskainiko dira.

Plaza mugatuak direnez, **izena eman** behar da **Liburutegian bertan**. [Horma-irudia](#)



DBH

Ebaluazio-txostenak

Gaur, martxoak 14, igoko dira 2. hiruhileko ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



Irteerak

❖ DBH4 Tabakalerara

DBH4. mailako plastika arloan gauden ikasleak datorren asteko **ostegunean**, martxoaren 20an, **Tabakalerara** joango gara. Bertan, hezkuntzako taldearekin kultura garaikideari gerturatu eta lantegi bat egingo dugu. Horrez gain, Tabakalerako eraikina ezagutu eta bertan dauden proposamen eta aukerak ezagutuko ditugu.

(**Mugi txartela** ekarri behar dute).



❖ DBH1 Arditurri meategira

Datorren ostegunean, **martxoak 20**, egun osoko irteera egingo dugu **Arditurriko meategietara, Biologia-Geologia** arloan.

❖ DBH3 - Frantsesa. Bordelera

Frantsesa ematen duten **DBH3**ko ikasleek **Bordelera** irteera egingo dute **martxoaren 19tik 21era**. Bidaia horretan Bordeleko inguruak ezagutuko ditugu pista jokoan eta ibilaldien bitartez. Bordeleko **Whoo hostelen** egingo dugu lo eta **martxoaren 21ean** 18:00ak aldera iritsiko gara Usurbila.

Martxoaren 17an, 10 €-ko kobrantza egingo da errezibo bidez.

Komiki-tailerra

Datorren **martxoaren 28rako**, ostiralarekin, 17:30etik 19:00etara, **KOMIKI-TAILERRA** antolatu dugu Sutegi Liburutegian.

Saioa **LH 4tik gorako hurrei eta gazteei zuzendua** izango da DBHkoak barne, eta Ainara Azpiazuk ("Axpik) eskainiko du. Saioan zehar komiki bat egiteko oinarrizko ezagutzak eta baliabideak eskainiko dira.

Plaza mugatuak direnez, **izena eman** behar da, **Liburutegian bertan**. [Horma-irudia](#)



Gazteentzako udalekuak

Udalerrri euskaldunetako **gazteentzako udalekuak** (2007 eta 2010 artean jaiotakoentzat) antolatu ditu aurten ere UEMAK. Azken urteotan gero eta arrakasta handiagoa du ekimenak eta, beraz, aurten ere **bi txanda** izango dira; ekainean eta uztailean. Txanda bakoitzean **60 lagunentzako** lekua izango da.

Tolosaldean eta Goierrin barrena ibiliko dira aurten gazteak, Baliarraindik Idiazabalera, Zaldibia eta Ataun ere zeharkatuz. Herri bakoitzean bi gau egingo dituzte.

Martxoarekin batera zabaldu du UEMAK izena emateko epea, eta **martxoaren 31n amaituko da**.

Udalekuari buruz gehiago jakin nahi izanez gero jo lotura honetara: <http://labur.eus/salto2025>

